

100dik gora euskara ikasle Valentziar Herrialdeetan

Ikasturte berezia da aurtengoa Valentziar Herrialdeetako hainbat Hizkuntza Eskola Ofizialetan. Alacanten eta Castellón euskara eskolak ematen hasi berri dira. Valentzian hirugarren ikasturtea dute. Gobernu aldaketa antzeman da. Espainiar estatuko Hizkuntza Eskola Ofizial askotan ez bezala, han hiruren artean sarea osatzeko moduan dira.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Garikoitz Knörr Valentziako Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara irakaslea da. Urrian hasi dute ikasturtea, eta hirugarrena da. Duela bi urte ezerezetik hasi zuen Euskara Saila Hizkuntza Eskolan. Erronka handia, eta era berean, erakargarria. Oso pozik ari da lanean Knörr, besteak beste, bere ikasleek euskara ikasteko “motibazio sanoa” dutelako. Hala dio erdi barrez irakasleak: “Oraindik ez naiz ohitu haien motibazioarekin”.

Uste izatekoa da Euskal Herritik hara joandakoak direla Hizkuntza Eskolan izena ematen dutenak, baina ez da hala. Bakan batzuk dira Euskal Herrian jaiok eta txikitan Valentziara joandakoak. Irakasleak berak ere mota horretako ikasle gehiago espero zuen. Gehienak bertakoak dira, valentziarrak, bat Cuencakoa, eta ingurukoren bat. Urrutitik Valentziara bizitzera joandakoak ere badiu: italiarra, errusiarra, bieloerrusiarra, errumaniarra. Askok hizkuntza zale amorratuak dira, hizkuntza dezente hitz egiten dituzte. Euskara oso erakargarria da hizkuntza zaleentzat. Irakasleari galdetu diogu ea altxortzat duten: “Ez da zerbait mistikoa. Bitxia egiten zaie, era-

kargarria. Batzuetan kosta egiten zait hauen motibazioa ulertzea, eta miresten ditut nire ikasleak”. Bada txikitan euskal musika taldeak entzuten zituen ikaslea ere, eta nola ez, euskara ikastea erabaki du. Bateren batek Euskal Herriko bikotekidea du. Knörrek ez zuen espero halakorik, baina lan kontuengatik euskara ikasi nahi duenik ere badu ikasgelan. Donostian autobus gidari izan nahiko lukeen ikaslea du. Hala ere, bakarra da lan arrazoiengatik euskara ikasten ari dena. Denek valentziera hitz egiten duten galdetu diogu, eta ezetz, erdia baino gehiago da valentziera hiztuna, baina baditu ikasgelan gaztelania hiztun elebakarrak. Irakasleak aitortu du valentziera hiztuna izateak eragina izan deza keela euskara ikasteko, baina ikasgelako gaztelania elebakarrak besteak adina motibatuta daudela dio.

70 ikasle Valentzian

Hizkuntza ikasi nahi dute, baina baita praktikatu ere. Euskal etxe sendoa da goela dio Knörrek eta hango ekintzen berri ematen die ikasleei. Hizkuntza Eskolan bertan, iaz Gabonetan gabon kanten kontzertutxoa eman zuten.

Ikasleen grinaren adibide da Valentzian *Black is Beltza* filma eskaini dutenean asko joan direla ikustera, “euskal kultura non, nire ikasleak hara doaz”. Ez dituzte pasatzen utziko Euskararen Eguna eta Euskaraldia. Euskal dantzez lantegia eta hitzaldia izango dituzte eta euskara maila oso apala badute ere babesa erakustearren argazkia aterako dute Euskaraldiaren alde. 70 ikasleak hiru mailatan daude banatuta. Bigarren maila bukatzen dutenean A2 maila lortzen dute eta hirugarren maila egindakoan B1 mailaren lehen urtea egin izaten dute. Asmoa C1 mailara arteko ikasleak izatea da. Ikasleren batzuk zuzenean sartu dira bigarren eta hirugarren mailetan, baina asko hutsetik hasitakoak dira. Valentzian hutsetik hasitakoa esaten denean “bai” eta “ez” zer den ez dakien jendeaz ari gara.

Gobernuaren bultzada

Lehenengo aldiz Valentzian, Alacanten eta Castellón, Valentziar Herrialdeetako hiru hiritan euskara eskolak ematea lortuko da aurten. Valentzian, euskal etxeak lehendik ematen ditu eskolak. Ez da kasualitatea, PSPV (Valen-

tziar Herrialdeko Alderdi Sozialista) eta Compromís-ek osatu eta Podemos-ek babesten duen gobernuak bultzatu du. Garikoitz Knörrek Valentziako Hizkuntza Politika buruarekin hitz egiteko aukera izan zuen eta hala dio: "Ia-ia bere apustua izan dela esan daiteke, guztiz logikoa iruditzen zitzaion Espainiar estatuan hitz egiten diren hizkuntzak irakastea. Dirudienez, Hizkuntza Eskola Ofizialen asmo fundazionala da hori". Irakaslearen ustez, arriskua hartu dute apustua eginda, gerta baitzitekeen ikaslerik ez edukitzea eta arerio politikoak porrota aurpegiatzea. Ez da halakorik gertatu, ordea.

Alacanten hasi berriak Euskaraldirako prest

Izaskun Kortazar eskolak ematen hasi berria da Alacanten. 30 ikasle ditu eta erabat motibatuta daudela dio. Euskarra maila oso apala dute edo ezer ere ez dakite, A1 mailan hasi dira. Ikasteko motibazioak eta pertsona profilak oso anitzak dira: Euskal Herrian jaiotakoak; Euskal Herrian lagunak dituztenak eta "lagunekiko errespetuz" euskara ikasi



Alacanteko ikasleak dira, urrian euskara ikasten hasiak. Guztira 30 dira.

nahi dutenak; oportetan joan eta hizkuntzak eta kulturak erakarri dituenak; lau-bost hizkuntza dakizkitenak; valentziera hiztunak izanda hizkuntza nagusiaren eta txikiaren arteko harremanaz

sentsibilitatea duen jendea; euskararen doinuagatik; penintsulako hizkuntzak ezagutu behar ditugula diotenak; Eus-



Valentzian hirugarren ikasturtea hasi dute. Argazkiko ikasleak lehen mailakoak dira.

kal Herrian oposaketak gaintu nahi dituen. Hasi 20 urteko gaztetik eta 84 urteko ingeles irakasleraino. Ingeles eta valentziera irakasleak nahikotxo dira.

Kortazar irakaslea hasieratik saiatu da hizkuntzarekin batera kultura ger-

turatzan, eta euskarari buruzko txapelketatxo bat egin dienean ohartu da dezente dakitela hizkuntzaren gainean.

Ikasleek interes linguistiko hutsa ez dutenez irakaslea eskolaz kanpo-

ko hainbat ekitaldi prestatzen ari da. Euskararen Eguna ospatuko dute, gero etorriko dira Gabon kantak, Santa Ageda eta Korrika. Ibilaldira edo Kilometroetara joatea ere buruan du Kortazarrek.

Gogoan dute Euskaraldia ere eta beren modura egingo dute. Ikasgelan *belarriprest* edo *ahobizi* izango dira eta erdaretara jo gabe euskarari eusten ahaleginduko dira, besteak beste mahai gainean izango dituzten liburuen laguntzarekin. Internetez haien burua euskaraz aurkeztuko dute eta ahal duten gehien egingo dute euskaraz. Irakasleak kalean valentzieraz *ahobizi* izatea proposatu die. Hala, antzeko sentimendu soziolinguistikoak bizi ahal izango dituzte. Jabetuko dira uste baino gehiagok dakiela valentziera eta jarrera onak eta txarrak sumatuko dituzte valentziarrei valentzieraz egiten dietenean.

Pozik daude Izaskun Kortazar eta Garikoitz Knörr, elkarren babesa izango dute hemendik aurrera, Valentziaren, Alacanten eta Castellóren artean sarea osatzeko moduan dira. ■

